

Euskal Herriko
oinarrizko
Hezkuntza AKORDIOA

EZTABAIDARAKO ABIAPUNTUA



AURKIBIDEA

SARRERA	3
TESTUINGURUA	4
EKARPENEN DOKUMENTUA. Euskal herritarren HEZKUNTZA	
ESKUBIDEAK	5
«Euskal Herriko Hezkuntza Publikoa»ren kontzeptua.	6
Euskal Herriko Hezkuntza Zerbitzu Publikorantz urratsak. Hezigune bakoitzean gara genitzakeen neurriak.....	7

SARRERA

Nazio Eztatbaida Gunea euskal herritarren arteko eztabaida nazional eta demokratikoa egiteko sortu zen 2003an. Euskal Herriko egoeraren diagnosa egin zuen, eta horren barruan, baita hezkuntzaren diagnosa ere.

Diagnosi hori abiapuntu gisa hartuta, gure herriaren biziraupena eta garapena bultzatzeko Nazio Plana adostu zen. Bertan, lehentasunezko hainbat egitasmo zehaztu ziren eta hezkuntzarekin harreman zuzena duten honako lau hauek jaso ziren: Euskal Curriculuma osatzea eta aplikatzea, Euskal Unibertsitatearen sorrera sustatzea, eskolak euskalduntzeko ildoak babestea, eta azkenik, EUSKAL HEZKUNTZA SISTEMA NAZIONALAREN inguruko eztabaida gauzatzea.

Nazio Garapenerako Biltzarrak eztabaida hau antolatzeko lekukoa hartu zuen eta gu, hezkuntzako hainbat esparrutako kideak, horren harira jarri ginen lanean. Bide horretan, Hezkuntza Batzordea osatu eta Euskal Herriko oinarritzko Hezkuntza AKORDIOA deitu duguna adostu dugu.

AKORDIOAK eztabaidarako abiapuntu izan nahi du. Molde zaharrak apurto, aurrera begira jarri, eta Euskal Herriaren hezkuntza bere herritarren beharretara egokitzea du xede. Egungo zatiketa sozialaren arriskuak gaititu (bi sare, heziketa eta aukera desberdinak...), hezkuntzaren dualizazioari neurriak hartu eta biztanleen herri identitatea eta kohesioa lortu nahi ditu.

Hezkuntzak berebiziko garrantzia du norbanakoaren eta herri baten garapenean, eta baita jendartearen kohesionatzeko ere (pentsaera guztiak errespetatuz, adoktrinamendurik gabe...). Horregatik guztiagatik, hezkuntzak lehentasun soziala izan behar du eta beharrezkoak dituen baliabideak eta inbertsioak jaso behar ditu.

Gure herriak behar duen hezkuntzari buruzko eztabaida soziala bultzatu nahi dugu. Horretarako, oinarritzko hezkuntza AKORDIOA hartzen dugu abiapuntutzat, halaber egon daitezkeen proposamen berriak gehitu eta, ezer inposatu gabe, errespetuan oinarrituta ahalik eta eztabaida zabalena sortu nahi dugu.

Gutariko bakoitza besteen oraina eta geroa da. Denok gaude inplikaturik, denok gara beharrezkoak, etorkizuna ari baikara prestatzen.

TESTUINGURUA

Aldaketa handiak gertatzen ari dira azken hamarkadetan munduan eta Euskal Herrian. Aro berrian sartzen ari gara, industria arotik ezagutza arora (informazioa, digitalizazioa...) igarotzen ari gara. XXI. mendearen hasieran 3-(15 edo16) urte bitarteko neska-mutil guztiak eskolaturik daude, globalizazioaren ondorioz erronka berriak agertu zaizkigu (migrazioa, teknologia berriak eta informazio saturazioa, adibidez), familien tipologia eta ikastetxeekiko harremanak aldatzen ari dira, baita hezitzaileen zereginak eta formazio-beharrak ere.

Halaber, asko izan dira eta dira hezkuntza sistemaranzko bidean herri ekimenez egindako ahaleginak. Esaterako:

- Ikastolen sorrera, garapena eta hedatzea.
- Hezkuntza publikoen barruan euskal irakaskuntzaren lanketan eta zentroen autonomiaren alde egindako ahaleginak.
- Kristau eskoletan edo giristinoetan euskalduntze bidean egindako saiakerak.
- Ekonomia Sozialeko ikastetxeek egindako ekarpenak.
- Unibertsitate eremuan, unibertsitate euskaldun eta propioa sortzeko saiakera eta urratsak.
- Aisialdi eremuan gertatutako zabalkundea.
- Hezkuntza ez arautuan, hainbat eragileren bidez gorpuztutako ekimenak.
- ...

Hezkuntza egitura administratiboak, aldiz, ez dira ari garai berrietara egokitzen. Euskal Herriak ez du hezkuntza sistema propioa, Herri bezala ez baitu beratu arautzeko, antolatzeko eta kudeatzeko eskumenik. Ondorioz, bermatzeke daude: ikasle guztien euskalduntzea, Euskal Curriculuma, euskal unibertsitatea...

Azken hamarkadetan sistema berri hori eraikitze bidean emandako urrats guztiak aintzat hartuz, hezkuntza sistema propioa garatu nahi dugu. Gure ustez, gure herriarentzako zer-nolako hezkuntza sistema nahi dugun eztabaidatzeko eta adosteko unean gaude; baita, hezkuntza sistema horretan publiko izaera definitzeko ere; bide horretan eman ditzakegun urratsak, egin ditzakegun ahaleginak bateratzeko garaian, alegia.

Hezkuntza ikuskera propio horren gauzatzean, Euskal Hezkuntza Sistemak oinarritzko eskubide hauek bere egin beharko lituzke.

EKARPENEN DOKUMENTUA. Euskal herritarren HEZKUNTZA
ESKUBIDEAK

1. Euskal Herrian bizi den herritar orok, hots, euskal herritar guztiek, nazioarteko oinarritzko eskubideen hitzarmenetan jasotako eskubideetan oinarrituta, Euskal Herrian bertan edozein ikasmaitan edota ikasarloan ikasteko eskubidea du, eta ez da inor baztertuko arrazoi politiko, ekonomiko, sozial, jatorriarekin edo sexuarekin lotutako, ideologiko edo akademikoren bat tarteko edota urritasun fisiko edo psikikoren bat izateagatik.
2. Euskal herritar orok eskolaren bidez euskalduntzeko eskubidea du. Euskal Herri osoan, edozein hezkuntza eskaintzatan euskaraz ikasteko eskubidea du. Eta hezkuntza prozesu osoan, ikasgune guztietan, euskaraz bizitzeko eskubidea du.
3. Euskal herritar orok Euskal Herriko curriculum propioaren arabera hezteko eskubidea du, eta bertako nahiz munduko jendarte zein kultur adierazpideak kontuan hartuko dira.
4. Euskal herritar orok hezkidetzan oinarrituriko hezkuntza jasotzeko eskubidea du; hots, parekidetasuna lortzeko didaktikan oinarrituriko hezkuntza jasotzeko eskubidea.
5. Euskal herritar orok hezkuntza oinarri demokratikoen arabera antolatzeko eta kudeatzeko eskubidea du: eskubide demokratiko guztiak (adieraztekoa, biltzekoa...) bermatuz, eskola komunitatearen pluraltasuna kontuan hartuz, antolaketa zein kudeaketa demokratiko eta parte-hartzailea gauzatuz, eta eskola komunitatea osatzen duten pertsonen eta herritarren hezkuntzaren gaineko erabakiak hartzeko eskubidea bermatuz.
6. Euskal herritar orok eskubidea du euskara eta jakintza ardatz izango dituen Euskal Unibertsitate Sistema, Euskal Herriaren beharrak aseko eta bideratuko dituen, izateko.
7. Euskal herritar orok eskubidea du hezkuntzaren bidez bere ahalmen guztiak garatzeko, pertsona kritiko eta aske izateko bidean.
8. Euskal Herriko ikasguneetan sartzen diren etorkin berriei eskubide osoz euren ama hizkuntza eta kultura errespetatuko zaizkie.
9. Hezigune bakoitzeko hezkuntza komunitateak bere Hezkuntza Proiektua izateko eta kalitatez garatzeko eskubidea du.
10. Hau guztia posible izan dadin, euskal herritarrek hezkuntzari buruzko erabakiak hartzeko eskubidea du. Hau da, Europako hezkuntza esparruan, Euskal Herriak hezkuntza sistema propioa izateko eta arautzeko eskubidea du.

Euskal herritar orok dituen eskubideak hauek izanik, hezkuntza sistemak guztientzat izango direla bermatu behar du. Bide horretan, «hezkuntza zerbitzu publikoak» horiek ahalbidetzen direla zaindu behar du.

«Euskal Herriko Hezkuntza Publikoa»ren kontzeptua.

Denon denari esaten zaio «PUBLIKOA»: guztiontzat irekia denari, denon ongiari begiratzen dionari eta guztiontzat aukera berdintasuna garatzen duenari. «HEZKUNTZA PUBLIKOA», beraz, herrien eta herritar guztien garapenerako beharrak asetzen dituen hezkuntza izango da, aukera berdintasunean eskubide guztiak ziurtatuko dituen kalitatezko zerbitzua.

Gure kasuan, arestian aipatutako euskal herritarren eskubideak gauzatzen dituen izango da «EUSKAL HEZKUNTZA PUBLIKOA».

Euskal hezkuntza publikoa «publiko-herritar» ikuspegian kokatzen dugu; hots, komunitateari lotua, hezkuntzan ere demokrazia parte-hartzailea gauzatu nahi baitugu.

Euskal hezkuntza publikoa erantzukizun kolektiboa denez, horren diseinua, antolaketa, planifikazioa, kudeaketa eta garapena botere publikoei eta hezkuntza komunitateari dagozkie. Izan ere, erabakiguneetan euskal herritarren partaidetza ahalbidetzea ezinbestekotzat jotzen baitugu.

Dena den, ukaezina da botere publikoek jokatu beharreko betekizuna guztion hezkuntza eskubideak bermatze aldera.

Horren arabera, «EUSKAL HEZKUNTZA ZERBITZU PUBLIKOA» gauzatzeko botere publikoei eta herritarrei (hezkuntza komunitateari) dagozkien eskumenak zehaztu eta banatu egin beharko lirateke. Finantziarioak eta kontrolak, berriz, publikoak izan beharko lukete. Beraz, hezkuntza publikoaren gestioak eraginkorra, gardena eta jarraipen soziala duena izan beharko luke.

Heziguneen titularitateak eta kudeaketak, berriz, heziguneen eta botere publikoen arteko hitzarmenean oinarritu beharko lukete.

Euskal Herriko Hezkuntza Zerbitzu Publikorantz urratsak. Hezigune bakoitzean gara genitzakeen neurriak.

Hezigune bakoitzak bere berezitasunak izango baditu ere, hezkuntza eskubideak aintzat hartuko dituzten heziguneen artean «EUSKAL HERRIKO HEZKUNTZA PUBLIKOAREN ELKARGUNEA» osatuko da.

Eskubideak berma daitezzen, hezteko prozesua hobetzea eta egokitzea izango da hezigune bakoitzaren egitekoa. Elkargunearen egitekoa, berriz, kalitatezko hezkuntza zerbitzu publikoa indartzea eta biztanleen herri identitatea eta kohesioa lortzea. Bide horretan:

1) Euskal Herriko Hezkuntza Eskubideen baitan hezigune bakoitzak bere hezkuntza proiektu propioa izan behar du, behar errealetik abiatuko dena, komunitateko partaide guztiena izango dena eta gestio eta gainbegiratze demokratikoak izango dituena. Horretarako, hezkuntza sistemak eredu dezentralizatua izan behar du. Eta ezinbestekoa da zentroen autonomia (antolaketa, pedagogia, ekonomia, langileria, ebaluazioa...).

2) Heziguneak, beste eragile batzuekin elkarlanean, ikasle guztiak euskaldundu behar ditu, eta euskaraz bizi ahal izateko prestatu.

3) Jendartean eta jendartearen bidez heltzen da norbanakoa gizaki izatera. Heziketak neska-mutilen kontzientzia librea eta kritikoa garatzen lagunduko du, jendartea hobetzeko.

4) Errespetuzko pedagogia pertsonalizatua eta esanguratsua lagungarriak dira heziketa prozesuan. Pedagogia ikertzailea eta zientifikoa da bultzatuko dena, eskubide berdintasunaren balioa sustatzen duena, hezigaien behar afektiboa eta emozionala kontuan hartzen dituena, helburu ikuspegi kritikoa duten herritar autonomoak lortzea duena...

Heziguneak inguruarekin harreman zuzena izan behar du. Ingurua integratzeaz gain, inguruan eragin behar du, eraldaketa edo bilakaera gauzatu nahi baditu. Ideia horri eutsiz, Euskal Curriculumak garatzea egite pedagogiko koherentea da, eta baliagarria herritarren kohesioa lortzeko.

Horretan guztian, langileak eta batez ere hezitzaileak dira eragile garrantzitsuak. Horien hasierako prestakuntza, ondorengo eguneratzea eta lanerako jarrera irekia eta kooperazioaren aldekoa ezinbestekoak dira.

5) Heziguneak menpeko erlazioak baztertu, eta eskubide berdintasuna izango du helburu. Sexuen arteko parekidetasuna lortzeko metodologia didaktiko egokia aplikatuko da.

6) Hezkuntza behar bereziak (fisikoa, psikikoa, egokitzekoa, hizkuntzazkoa...) dituzten hezigaiei era egokian erantzun behar die. Hau da, aukera berdintasuna garatzen duen jendartea lortzen lagundu

behar du hezkuntzak, behar handiena duenari laguntza handiena eskainiz, ahalik eta jendarte kohesionatuena eta inklusiboena lortzeko bidean.

7) Etorकिनak hezigune edo gela berezi batzuetan elkartzea baino egokiago da ezaugarri anitzak dituztenak ikasgela beretan elkarrekin aritzea, hala nola: jatorri desberdinekoak, maila sozial eta kultural anitzekoak, hainbat gaitasun eta muga dituztenak...

8) Hezigunearen bizitza dinamikoa, parte-hartzailea eta demokratikoa izango da. Komunitateak (langileak, gurasoak, hezigaiak...) erabakietan parte hartzeak bermatzen du hori.

9) Heziguneen eta unibertsitateen arteko elkarlana sustatu egin behar da, ikerketek eguneroko hezkuntza prozesuekin zerikusia izan dezaten eta aplikazio praktikoa eduki dezaten.

10) Hezkuntza prozesu orokorrak eta hezigune bakoitzaren ibilbidea ebaluatu beharrekoak dira. Ikasi eta hezteko prozesuen jarraipena egin behar da hobekuntzak egin ahal izateko.

11) Hezkuntzak hezigune esparrua gaintu, eta familiarekin, aisialdiarekin, komunikabideekin, teknologia berriekin, bidaiekin, jokoekin eta jendarte-ekintza ororekin harremana eta elkarreragina du. Horren harira, egungo behar sozialei (familia eredu askotarikoak, emakumeen kanpo-lanerako sarbide handiak, eskolaz kanpoko eta aisialdiko eskaintza ugariak, teknologia berrien eragina, lan, eskola eta familia ordutegi ezin josiak...) era egokian erantzungo dien hezkuntza eredia lortu beharra dago, eta eskolaren betekizuna aztertu beharra.